

ARETXABALETARRON ADIERAZPENA

Aretxabaleta betidanik egon da oso lotuta natur inguruniari. Gure herriko historixiari errepasso bat egittie nahikue da, aretxabaletarrok natur inguruniaz eduki douen harreman estuaz konturaketako. Urtietan ziher baina, harremana galduaz fatiaz gain, inguruniarekiko errespetua be galduaz fan gare. Eta gaur egun, eskuartien daukoun erronkie ez da edozelakue. Izen be, hondakinen kudeaketa arazo bat bilakatu jaku. Horregatik, aretxabaletarrok elkarlanien, gure inguruniari dagokixon balixue emun guran honako adierazpen hau egiten dou:

1.- Natur ingurunia eta baliabideekiko errespetua sustaketako eta praktikara erueteko herrittar danon parte hartzia biharrezkua dala. Hori dala eta, hondakinak gutxitu, berrerabili eta birziklaketako apustua egiten dogu.

2.- Norabide horretan, bat egiten dou Aretxabaletako Udalak onartu berri dauen, hondakinen bilketa sistemiaz. Gure ustez, hondakinekin daukoun arazua konponketako zera egin biher da: hondakin gutxiago sortu, ahalik eta gehixen berrerabili eta ahal dan dana birziklatu. Gaur arte 5. edukiontzixak bere ekarpena egin dau, eta orain beste aurrerapauso bat emungo da, gaikako bilketa tasak igoteko asmuaz.

3.- Naturiaz kezkatuta eta konpremituta dauzen herrittarrei deixe luzeketan dutzegu, hondakinen arazuari planteau jakon irtenbide honetan parte hartzera. Gure ondorengo belaunaldixei be, guk jaso doun natur ondarie itxi gure dutseuelako.

4.- Aretxabaletarron gehixengua birziklatzian aldekoa da seguruenez; etikua, ekologikoa, justue eta naturala dalako. Hori zelan egin asmaketie da kontue. Eta norabide horretan aretxabaletarrok, udalak proposatutako sistema barrixakin arduraz jokatuko dogulakuen, ahalegin bat egiteko prest gaz? Seguro baietz.

Aurreko belaunaldixengatik jasotako ondare naturala hurrengeuei be, biher dan moduen transmitirutie gure egin bihera dalako.

Nik, _____, atxikimendue emuten dutset Aretxabaletarron adierazpen honi.

Aretxabaletarron adierazpenan aurkezpen ekitaldixe, martxoaren 20xen, atsaldeko 19:00etan Arkupeko gela haundixen izengo da.

Zero Zabor-az bat egiten dogun herritarrak